



Hernaniko Parke Botanikoa

Argazkia: Jesús Mari

Nere Borda,

Hernaniko lorategi botanikoa

Iñaki Sanz-Azkue eta Anaïs Mitxelena

Londreseko "Royal Botanic Gardens"-aren handitasunik edo eta "Orto botanico di Pisa"-ko lorategi botanikoaren historiarik ez duen arren, Hernanin bertan herritik aldendu gabe ere badugu landare eta zuhaitz bereziez gozatzeko aukera ematen digun txokoa. "Nere Borda" du izena eta Hernaniko Lorategi Botanikoa da.



Argazkia: Jesús Mari Azkue

LORATEGI BOTANIKOA HERNANIN.

Koloradoko izeiak, palmondo kanariarrak, jukak, jasminak, pago gorriak... *Nere Borda* jardin botanikoak mota eta jatorri ezberdinetako landareak biltzen ditu eremu txiki baina erakargarrian. Herriaren erdigunetik 10 minutura, lorategia Latsunbe auzoko biribilgunearen alboan dago kokatua eta Hernaniko udalerriko ondare kultural eta naturalistikoaren katalogoan dago jasoa.

Landareez gain, ordea, badira lorategia berezia egiten duten beste ezaugarri batzuk ere. Horietan azpimarragarrienetarikoa jardinak berak duen diseinua da. *Nere Bordakoa*, lau eremu ezberdinez osaturiko lorategia da: lorategi ingelesa, basoa, lorategi klasikoa eta

lorategi esperimentalak ditu. Hauetan guztietan aurkituko ditugun landareak identifikazio-txartel batekin hornituak daude, bisitariek zein espezieren aurrean dauden jakin dezaten.

Eremu irekia edo lorategi ingelesa.

Biribilguneetik gertuen dagoen parkearen zatia da. Gainontzekoak bisitatzeko ordutegi bat dagoen arren, lorategi ingelesa gune irekia da, abiapuntura itzultzen den bide zirkular batez osatua eta mota askotako espezieez apaindua.

Zedro urdina, Himalaiako zedroa eta magnolioak dira, Kanarietako palmondoekin batera, lorategi ingeleseko zuhaitzik esanguratsuenak. Hauen babesean zuhaixka eta loreak aurkituko ditugu, hauek ere kanpotik ekarriak.



Basoa.

Zuhaitz handi eta zuhaixkez osaturiko gune itzaltsua da. Lorategiaren iparraldean dago kokaturik eta haize babesgarri lanak egiten ditu.

Bertan, bide baten alde bietara izei gorriak, intsinis pinuak eta erramu orbandunak nagusitzen dira. Baina agian bide ertzean aurki daitekeen intsinis pinuetako bat da guztietatik aipagarriena.

Hernaniko Udalak, 2003. urtean, ale hau Zuhaitz Berezien Katalogoan sartzeko eskaera egin zuen. Izan ere dituen dimentsioak aparteokoak dira, 25 metroko altuera eta ordurarte Gipuzkoan eza gutzen zen enbor-perimetro lodiena (441 cm) baititu.

Lorategi klasikoa.

Lau zatitan banaturiko karratu itxurako eremua da. Bertan Kanarietako palmondoak dira gehien ikusten direnak. Bide ertzean, aldiz, ezpelak eta basae-rramuz osaturiko tontorkak azaltzen dira, lorategi klasikoa modu erakargarri batean apainduz.

Lorategi esperimentalak (eremu didaktikorako erabilia).

Garai bateko atsedenekua da. Egun jarduera partehartzaileak eta didaktikoak egiteko prestatua dago. Ur-landareak dituen putzuaz gain, bada aldizkako landaketa aldagarriak egiteko gune bat ere, baita informazio taulak jartzeko horma-markesina bat ere.

Hernaniko
Parke
Botanikoa



Ordutegia Horario

NEGUAN Invierno: 9:00 - 18:00

UDAN Verano: 9:00 - 20:00

EGUNERO IFEKITA DAGO Abierto todos los días

HERRIAREN ERDIGUNETIK 10 MINUTUTARA

Aberastasun botanikoa eta diseinua
elkartzen dituen parkea.

Konifera ezberdinak, Gipuzkoan dagoten pinurik handiena izan daitekeena, hosto galkorreko zuhaitzak, denboraldiko kolore bizidun loreak, urmaela, penufareak, arraitxoak...

Kolore eta material ezberdinetako harlauzez galtzadatutako bideak, segurrezko eta harrizko aulkia...

5.685 m² familiarekin gozatzeko, lasai
egoteko, paseo bat emateko, natura
miresteko, irudimena askatzeko...

A 10 MINUTOS DEL CENTRO



HALLE-TARREN LORATEGI PRIBATU- TIK HERNANIKO PARKE BOTANIKO- RA.

2000. urtean Hernaniko Udalak lorategia erosi zuen arte, egun *Nere Borda* dena jatorri alemaniarreko Halle senar-emazteena izan zen. Parkearen alboan dagoen etxebizitzan bizi ziren eta gaur parke botanikoa dena euren lorategi pribatua izan zen. Baina Udalak lorategia erosi zuenerako jardina dagoeneko diseinaturik zegoen eta kanpotik ekarritako espezie asko bertan zeuden landatuak.

Guzti honek zer pentsatu eman zигun. Jardina diseinatu zuenak lorategiei zein botanikari buruzko ezagutza

handia eduki behar zuen... Izan ere, ekarritako landare arrotzak euren baldintzetatik kanpo landatzea eta haztea ez zen lan erraza. Are gehiago, lorategiak zuen itxurak, egileak landareekiko ezagutza eta afizio handia zituela adierazten zigun eta baita dirua horretan gastatzeko aukera ere!

Hau honela izanik, Kurt Halle (senarra) eta Lidia Hallerentzat (emaztea) lan egindako bi hernaniarrekin elkar-
tzea erabaki genuen.

Lidia Halle, lorategi botanikoaren ama?

Maria Pilar Carrerak Halle-tarrek Orko-
lagan zuten lantegian lan egin zuen

urte askoan. Mantilak eta errezelak egiten zituzten bertan eta Kurt Halle zen bertako nagusia. Hau dela eta senar-emazteen artean Kurt bera, fabrikako nagusia, izan zen hoberen eza-
gutu zuena.

Patxi Apezetxeak, aldiz, Lidia Halle emaztea ezagutu zuen. *Nere Bordako* jardinarekin lorategiaren mantenimendu eman zuen 20 bat urtez Halletarren jabegotasunean zenean. Bertara astean 3-4 egunez joaten zen lau orduz lan egitera.

Kurt eta Lidia Halle II. Mundu gerrarekin batera azaldu ziren Hernanin. Biak ala biak alemaniarrek baziren ere se-



narra jatorri judutarrekoa zen. Maria Pilarrek adierazi digunaren arabera Halle-tarrak Plaza Berrian bizi izan ziren lehendabiziko urteetan, beranduago egun jardín botanikoa dagoen etxera joan baziren ere.

Loreei buruz hitzegitean, ordea, Lidia Halleren izena da azaltzen dena. Gogoan ditu Maria Pilarrek Lidiak fabrikaren kanpoaldean zituen loreak. *"Oso jardinzalea zen emaztea"* dio Maria Pilarrek. *"Berak (Kurt Hallek) nahiko lan zuen fabrikarekin"* dio.

Patxik berak ere, hasieratik baieztatu digu Maria Pilarrek aipatutakoa. Lidia Halleri izugarri gustatzen zitzaizkion

loreak eta *"jardina emazteak berak diseinatu zuen"*. Patxi lorategian lanean hasterako landare gehientsuenak landaturik zeuden jada, orain kiroldegia dagoen lekuan zeuden pinuak izan ezik: *"Hauetariko batzuk guk geuk landatu genituen lorategian"* dio.

Nabaria da Patxik ordu asko sartu zituela bertan lanean, oraindik ere buruz zenbatzen dizkigu eremu bakoitzeko zuhaitzak. *"Jardina oso txukun edukitzea gustatzen zitzaion seño-rra-ri, belar txarrik gabe! Eta halaxe ibiltzen nintzen ni, belarrak banaka kentzen, magnolioei piramide forma ematen..."*.

Senarra eta alaba hil zitzaizkionean, Lidia bakarrik geratu zen eta bere bizi-eta ilusioa lorategian jarri zituen. Jana edo eta arropan diru askorik ez zuela gastatuko baina lorategian dirua uzteak ez ziola inporta ere esan izan zion Patxiri behin baino gehiagotan.

Lidiak landareekiko zuen ezagutza eta pasioari esker bere jardín botanikoa propioa diseinatu zuen etxean bertan. 2000. urtetik hona ordea bere lorategia zena, bisitatu nahi duen ororentzat dago irekia *"Nere Borda Jardín Botanikoa"* izenpean. Lidiak, zoritxarrez, ez zuen halakorik ezagutu.



Lorategiaren eta etxearen ikuspegi orokorra 1968 urtean.



LORATEGI BOTANIKOAK ETA EUREN GARRANTZIA ESPEZIE MEHATXATUEN KONTSERBAZIOAN.

Parke edo lorategi botaniko bat landareak, batez ere iratze, landare loreduak eta zuhaitzak dituen gune bat da. Baina lorategi arruntetan ez bezala, jardin botanikoetako landareak ikerketarako, kontserbaziorako eta hezkuntzarako hazten dira.

Ezagutzen den zaharrena XVI. mendekoa da, 1543an Pisako Unibertsitateak medikuntzarako erabiltzen ziren landareak ikertzeko sorturikoa. Egun, ordea, lorategi botanikoak mundu osoan zehar barreiatuak aurkitzen dira eta Kontserbaziorako Lorategi Botanikoen Elkarte Internazionala (BGCI) taldeak esaterako mundu osoko 800 kide (lorategi botaniko) biltzen ditu.

Lorategi botanikoek oso funtzio garrantzitsuak bete izan dituzte historian zehar eta egun ere hori bera egiten dute. XVIII. mendean, adibidez, esplorazio-bidaletatik ekarritako landareak beren jatorriko lurraldetik kanpo acli-

matatzeko erabiltzen zituzten gune hauek. Egun, aldiz, turismo berdea erakartzeko ez ezik, jardin botanikoek funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte landare espezie mehatxatuen kontserbazioan, hauekin erlazioaturiko ikerketetan edo eta ingurugiro-hezkuntzan.

Baina jardin botanikoetara ekartzen diren kanpoko landareekin ere ardura handia eduki behar da. Izan ere, hauek ekarritako landare batzuen haziak ingurune naturalera zabaltzen dira hemengo klimara egokituz eta landare exotiko inbaditzaile bihurtuz. Hau dela eta, egun, landare hauek asko arriskutsuak suerta daitezke ekosistema eta flora autoktonoarentzat.

Euskal Herrian bertan hainbat lorategi botaniko dira: Gasteizen eta Barakaldon esaterako. Baina gertutasunagatik agian Iturrarango lorategi botanikoa da ezagunena gure artean. Gipuzkoako Aia herrian Pagoetako Parke Naturalaren barruan dagoen 10 ha-ko gune honek 2.400 landare ditu eta espezie



atzerritar zein autoktonoekin osatua dago. Horrez gain, Euskal Herriko landare mehatxatuen bilduma bat du eta ibilbide batzuk ditu diseinatuak mota ezberdineko hainbat zuhaitz ikus daitezkeelarik bertan, bakoitza bere etiketaz identifikaturik.

Zein da Nere Bordaren funtzioa Hernanin?

Nere Borda Parke Botanikoa Hernaniko turismo berdeari bultzada emateko tresna paregabea da, eta era berean herritarroi ingurumen-hezkuntza lantzeko ez ezik, atsedena, aisia eta lasaitasunaz gozatzeko aparteko txokoa eskaintzen digu.

Eskerronak:

Maria Pilar Carrera Vera eta Patxi Apezetxea Navarriori, baita beraien senar eta emazteari euren etxean eskuzabaltasun eta goxotasun osoz hartu gintuztelako.

Bestalde, ez genituzke eskertu gabe utzi nahi Ines Sarasua eta Agustin Sanz, lorategiaren jatorriari buruzko informazio bila noraezean ginenean bidea argitu zigutelako.